

URTARRILA

ZERURA BEGIRA

Neguko lehen hilabete oso honetan egun-argia dirudiena baino gehiago luzatuko da. 48 minutuz izago dugu argi gehiago otsailaren lean, urtarrilaren lean baino.

Urtarrilak 4, 12,40etan, ilgora
 “ 11, 6,57etan, ilargi betea(ilbehera hasi)
 " 18 23,17etan ilbehera
 " 26, 21,20etan ilargi berria (ilgora hasi) eta eguzki-eklipsea

* ordu ofizialak.

Erein: hazia; **Landatu:** landarea, aldaska, zaina, erreboila, begia, etab.



I.X.I.

EREIN		LANDATU	UZTA	
BARATZA	Ilgora	* Baratzuria * Eskarolak * Marrubia * Azak (udaberrirako) * Tipula (udarako)	* Ur-berroa	* Arbitxoak
	Ilbehera		* Txikoria	* Porrua
	* Ilarrak		* Eskarolak	* Batata
	* Babazuria		* Azak	* Apioa
	* Piperrak ¹		* Azaloreak	* Gardua
	* Kalabazina ¹		* Azenarioa	* Kuiak
	* Alberjina ¹		* Zerba	
	¹ Babesean			
BELARRAK			* Perrexila	

ESAERAK

(Julian Alustizaren "Euskal Baserriaren inguruan" liburutik jasoak)

- * Elur, melur, ez nauk hire beldur, etxean baditiat arto eta egur
- * Neguak atek ixten ditu
- * Sierrako haizia, elurre atariraino (Erronkari)
- * Elurra nahiz zuria izan, beltza duk, beltza!
- * Urtarrileko hotza, neguaren bihotza.
- * San Bizenteko hotza (urt. 22) neguaren bihotza (Aztiria)
- * Hilbeltzak egiten badu hiltxuri, ardiak haziko dute axuri; Hilbeltzak egiten badu hilbeltz, ez ardi eta ez axuri (Urdiain)

FRUTARBOLAK

NEGUKO TRATAMENDUAK

Uztaz aspaldi ahaztuta, hurrengo urtaroa prestatzen hasi beharko dugu. Landaketak gauzatzeko garai egokia da, bi baldintza kontutan harturik: bata, izotzik ez den egunean burutu eta bestea zulaketa alde zurretik egin, landaketa bitartean ahal den tarterik handiena utziz.

Negua jasateko bai gaitzak eta bai izurriteak beren forma erresistenteak garatzen dituzte, baina frutarbolatan hauen aurka tratamenduak egiteko garai egokia da.

Gogoratu lehen hain zabaldua zen enborreko kareaz tratatzeko ohitura. Egun, tratamendu egokiak dauzkagu; olio-estruturura duten produktuak alegia. Produktu hauek, arbolaren gainean, aireak igaro ezin duen geruza sendo bat osatzen dute, zeinaren azpian negu-esporkak, izurriteen arrautzak etab. ito egiten diren.

Datorren urtaruari begira neguko tratamendu hauek oso garrantzitsuak dira:

- Sagasti eta frutarbolak iazko gaitz eta izurriteen arrastoetatik libratuta, urtaroarean hasiera bikaina izan daiteke.
- Urtaroaren hasieran frutarbolaren urteko garapenik nagusi



Frutarbolek fruitu oparoak eman ditzaten ...

sienak gauzatu ohi dira, hala nola, loraldia, fruta hartzearen segurtatzea, egur-egituraren garapen nagusia, etab.

- Kanpoko sagasti edo frutarbola batetik etor daitezkeen kutsaketak gehienetan ekaina aldera arte ez dira gertatzen (gaitzaren onddoa eta izurritearen forma hegadunak ere sortzeko zikloa osatu behar bait dute), eta hauek tratatzen errazagoak dira eta arbola bera egoera osasuntsuagoan aurkituko da beraiei aurre egiteko

TRATAMENDU-MOTAK. OLIOAK

Neguko tratamendu hauek hostoa erori denetik udaberrian begiak hazten hasi bitartean egin behar dira; frutarbolaren sasoi

apalean alegia, sasoi aktiboan landarea bera ere itoko luke-telako.

Tratamendua erabat gomendagarria da armiarma edo akaro eta onddoek eragindako gaitzak ditugun kasuetan; bai pipi-tadun-frutarboletan eta bai hezurdun frutarboletan.

Bi olio-mota aurki ditzakegu tratamendua egiterakoan: *olio zuria* eta *olio horia*. Olio zuria arinagoa da eta osatzen duen geruza antzekoa bada ere, berarekin daramatzen fungizida, akarizida edo intsektizidak produktu aktibo arinak dira eta beren toxikotasun maila (A).

Segurtasun-epeak ere motzak dira (15-20 egun).

Olio horia aldiz, oso indarsua da daraman produktu aktiboen (intsektu, akaro edo onddoen hilkariaren) eraginak oso gogorrak direlako. Toxikotasun handia dute (B eta C maila) eta itxaron beharreko segurtasun-epea oso luzea (30 egun).

... neguko tratamenduak egokia izan behar du.

